

BIDEKO LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOA

KODEA

2017-62-11-16

INFORMAZIO OROKORRA

IRAUPENA 10 ordu **IKASTARORA SARBIDEA** <http://autoprestakuntza.euskadi.eus>

HARTZAILEAK Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lan egiten duten enplegatu publikoak.

BALDINTZAK
-Helbide elektronikoa bakarria ikasle bakoitzeko
-Administrazio Orokorreko ikasleentzat: korporazio-saretik kanpodo posta-zerbitzarietatik eta zerbitzarietara mezuak bidaltzeko eta jasotzeko aukera ematen duen posta elektronikoko kontua izatea. Ez dute balioko mezuak korporazio-sarearen barruan bidali eta jasotzeko aukera besterik ematen ez dutenak.

ESKAKIZUN TEKNIKOAK
SOFTWAREA:
• Windows XP edo berriagoa
• Nabigatzaileak: Internet Explorer 8, Mozilla Firefox 14.0.1 edo berriagoa eta Chrome eguneratua
• Pantailaren bereizmena: 1024 x 768 (gomendatua)
• Adobe Flash Player 10 edo berriagoa
• Acrobat reader 8 edo berriagoa (gomendatua)
• Interneterako konexioa eta Youtube zerbitzuko atzipena zabalik
HARDWAREA:
• PC Pentium III edo berriagoa
• Soinu-txartela
• Entzungailuak edo bozgorailu independenteak

TUTORETZA
Tutorearen egitekoak:
➢ Ikasleei plataforman ongi-etorria emateko mezu bat bidaltzea.
➢ Kontsultei erantzutea:
• ikastaroaren edukiari buruzkoak, plataformako foroaren bidez
• 24 orduko epean erantzutea
➢ Ikaskuntzaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

HILA	HASIERA	AMAIERA	ADMINISTRAZIO OROKORRA		BESTE ADMINISTRAZIO BATZUK	BAJEN JAKINARAZPENAK
			ESKATZEKO AZKEN EGUNA	ONIRITZIA	ESKATZEKO AZKEN EGUNA	
URRIA	urriak 2	urriak 20	Irailak 1	Irailak 4tik 8ra	Irailak 8	Irailaren 29a arte

ZER LORTU NAHI DUGUN

HELBURU OROKORRAK
Ikastaro honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetan lan egiten duten pertsonak izan ditzaketen trafikoko istripuetatik eratorritako ezbehar kopurua murriztea da. Istripuak murrizteko ezinbestekoa da bide-segurtasunaren hiruki hau azpimarratzea: **bidea/ ibilgailua/ pertsona**. Ikastaro hau pertsonaren erpinetik dago fokaturik eta asmoa istripuen prebentzioan pertsonak izan dezakegu rol aktiboaren inguruan sentsibilizatzea da.

HELBURU ZEHATZAK
• Istripu-tasen larritasunari buruzko hausnarketa egitea.
• Portaera arriskatuz jabetzea
• Arreta mantentzearen garrantzia balioestea
• Onartzen dugun arrisku-mailari buruzko hausnarketa egitea.

GAITASUNAK
Prestakuntza-ekintza amaitzean, ikaslea gai izango da:
➢ Bide-segurtasunik eza mundu mailako arazo modura identifikatzeko, lehenestekoa eta esku-hartzekoa.
➢ Portaera arriskutsuen arrazoiak hautemateko.

PRESTAKUNTZA ARLOA:	Lan-arriskuen prebentzioa
MODALITATEA:	On-line
HIZKUNTZA:	Euskara

BIDEKO LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOA

- Prebentzioa ezinbesteko zeharkako estrategia modura balioesteko pertsonen segurtasunari begira.
- Etxetik lanerako bidean eta lanetik etxerakoan hartzen ditugun portaera arriskutsuak hautemateko.

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGIA

Autoprestakuntzako ekintza honek bi ardatz nagusi ditu: plataforma birtuala eta tutoretzak. Ikaskuntzaren oinarrian, sistema dinamiko bat dago, ikasleek aktiboki parte har dezaten; tutoreak gidatzen du ikaslea, eta ikasleak, berriz, banakako lana eginez eta elkarlanean arituz ikasten du. Ikastaroak 7 ikasgai ditu, eta ikasleen ikastaldia osatzeko bideak hauek dira: ikastaroko dokumentaziora eta irakurtzeko esteketarako sarbidea; foroetan parte hartzea; ariketa praktikoak eta galdetegiak egitea, eta tutorearekin beti harremanetan egotea, plataformaren bidez.

PROGRAMA

1. Ikastaroaren aurkezpena
2. Istripuak, lege arazo bat
3. Zergatik izaten ditugu istripuak?
4. Pertzepzioa, jarrera eta portaera
5. Arriskua
6. In itinere eta misioko istripuak
7. Prebentzioa

EBALUAZIOA

Ikastaroaren helburuak betetzen direla bermatzea izango da ebaluazioaren **helburua**. Ebaluatuko da: pantaila birtualez osatutako ikastaroa ikustea, tutoreak proposatutako foroetan ekarpenak egitea, eta ikastaroko ideia garrantzitsuenak bereganatu direla konprobatzeko test itxurako galdetegia zuzen erantzutea.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

Ikasleen gogobetetze-inkesta eta Irakaslearen balorazio-inkesta. Posta elektronikoaren bidez, inkestaren lotura jasoko duzu, bete dezazun.

ZIURTAGIRIA

Aprobetxamendu egiaztagiria lortzeko bete beharreko baldintzak:

- Ikastaroko pantaila birtual guztiak ikustea
- Tutoreak foroan proposatzen dituen ariketak egitea
- Test itxurako azken galdetegian 15 galderetatik, gutxienez 12 erantzun zuzen izatea

Ziurtagiria digitala da, eta ikastaroa itxi ondoren eskuratu daiteke. Zure egiaztagiria lortzeko, Prestakuntza Zerbitzuko FAQ atalean kontsultatu: Administrazio Orokorra edo Toki Administrazioa arloetan.

PREZIOA

Matrikularen zenbatekoa Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzak ordainduko du.

OHARRA

Laguntza teknikoa behar izanez gero:

- Deitu CAUko telefono zenbakira (945016) **440**
- Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 20:00etara

Aministrazio-gaiekin lotutako kontsultak egiteko: prestakuntza@ivap.eus